



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

2020ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA

OPE 2020. ENSEÑANZA SECUNDARIA

ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA



1. ATALA (5 puntu): BURTZAÑA

*Bedar ezez burdija,
-arrats onen usaña!-
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzaña?*

*Lats-axia kantari
eta zumak dantzari.
Landa zabalén jaunoi,
burdi orrek darua
bideskako kirrinkaz
zelaiko gentz osua.*

*Bedar ezez burdija,
-arrats onen usaña!-
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzaña?*

*Lerdijak ez bijotzik,
ezta arratsak samiñik.
Zeuri adi neskatzak
itxi dabe biarra.
Akulu orren puntan
dizdiz daukozu ixarra?*

*Bedar ezez burdija,
-arrats onen usaña!-
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzaña?*

*Gorri daukez gingillak
idijon burkojalak!
Landa zabalén jaunoi,
-gentzaz burdi aztuna-
Kirrinkaz ba-darozu
Neskatxen mattasuna!*

*Bedar ezez burdija,
-arrats onen usaña!-
Ain samur abestija,
norantz zuaz burtzaña?*

Lauaxeta (Esteban Urkiaga), **Arrats beran**, 1935

burdija: gurdia / burtzaña: gurdi-zaindaria / lats: erreka / gentz: bake
lerdijak: pinudiak / burkojalak: buruko oihalak (idiek uztarpean eramaten dituzten oihalak)



1.1. Hizkuntza ezaugarriak (1 puntu)

Azaldu labur “Burtzaña” poeman azaltzen diren Lauaxeta poetaren bost hizkuntza ezaugarri desberdin.

1.2. Baliabide literarioak (1 puntu)

Bilatu testuan bost baliabide literario. Azaldu labur (maila fonikoa, maila morfosintaktikoa eta maila semantikoa kontuan hartu).

1.3. Gaia(k) eta egitura (1 puntu)

Azaldu “Burtzaña” poemaren gaia(k) eta egitura.

1.4. Iruzkina (2 puntu)

Honako gaia garatu: *Lauaxeta, tradizioa eta modernitatea “Burtzaña” poeman.* (200-250 hitz)

2. ATALA (5 puntu): IRAKURLE EUSKALDUNARI

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurkean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela-txikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea.

Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argiratu dituzten Ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latiñezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea Euskera, Gaztelania, eta Latinezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan!

Bizenta Mogel, **Ipui onak**, 1804

2.1. Aurkezpena prestatu (1,5 puntu)

Bizenta Mogelen lana ikasleei helarazteko sarrera bat prestatu behar duzu. Idatzi lerro batzuk (80-100 hitz) ikasleen interesa pizteko modukoak. Aipatu egilearen, obraren eta testuinguru literarioaren ezaugarri nagusiak.

2.2. Egitasmo didaktikoa (3,5 puntu)

Irakurmenak eskolan berebiziko garrantzia du. Hori lantzeko, eta Bizenta Mogelen testua abiapuntu hartuta, garatu egitasmo didaktiko **oso** bat. Azal ezazu urratsez urrats, ikasleen **testuinguru zehatz bat** aintzat hartuta.